



**Araugintzako ebaluazio
txostena**

**Informe de evaluación
normativa**

2017ko otsailaren 28ko 1/2017 Foru Dekretu-Araua, zoru klausulen aplikazioagatik ordaindutako kopuruen itzulketak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan izango duen tratamendua ezartzen duena.

Decreto Foral Norma 1/2017, de 28 de febrero, por el que se determina el tratamiento en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de las cantidades percibidas como consecuencia de la restitución de las cantidades satisfechas en aplicación de las cláusulas suelo

Txosten honen bitartez bete nahi da uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 6.4 artikuluan ezarritakoa, bertan xedatzen baita zenbait foru arauren kasuan Batzar Nagusiek araugintzako ebaluazioa egin behar dutela, indarrean jarri eta urtebetera.

A través de este informe se trata de dar cumplimiento al mandato legal recogido en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, según el cual, ciertas normas forales serán sometidas al procedimiento de evaluación normativa por las Juntas



Sarrera

Zenbait epai judizialek zoru klausulak abusuzkoak zirela adierazi zuten, deusezak zirela deklaratu eta oker ordaindutako zenbateko horiek kreditu entitateak itzuli egin behar zizkiotela kaltetutako pertsoneri.

Itzulketa eskaerak kopuruz handiak izan zaitezkeelakoan, Estatuko Gobernuak onartu zuen urtarrilaren 20ko 1/2017 Errege Lege-Dekretua, kontsumitzaileak zoru klausulei dagokienez babesteko presako neurriei buruzkoa. Horren bitartez, kontsumitzailea eta kreditu entitatea ados jartzeko eta kontsumitzaileari kopuruak itzultzeko bide bat ezartzeaz gain, arautzen da zer tratamendu fiskal izango duten itzulketa horien ondorioz jasotzen diren zenbatekoek.

Txosten honetan aztertutako Foru Dekretu-Arauaren xedea da, hain

Generales, una vez transcurrido una año desde su entrada en vigor.

Introducción

Diversas sentencias judiciales reconocieron el carácter abusivo de las cláusulas suelo, declarando su nulidad y establecieron que las entidades de crédito debían restituir a las personas afectadas las cantidades indebidamente satisfechas.

Ante la previsión del incremento de demandas solicitando dicha restitución, el gobierno del Estado dictó el Real Decreto-ley 1/2017, de 20 de enero, de medidas urgentes de protección de consumidores en materia de cláusulas suelo. En el mismo, además de arbitrar un cauce para facilitar acuerdos entre entidades de crédito y personas afectadas para la restitución de dichas cantidades, se regula el tratamiento fiscal de las cantidades percibidas como consecuencia de tales devoluciones.

El Decreto Foral-Norma analizado en este informe tiene por objeto,



zuzen ere, Gipuzkoako foru lurraldean arautzea zer tratamendu fiskal emango zaien jasotzen diren zenbateko horiei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

Arau aldaketak

Honako aldaketa hauek sartu zituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan:

- ♦ Ez dira integratzen zerga oinarrian maileguren interes tasak mugatzeko klausulen aplikazioagatik finantza entitateei interesen kontzeptupean aurrez ordaindutako kopuruen itzulketak, ezta kalte-ordain gisa dagozkien interesak ere, itzulketa hori finantza entitateekin hitzartutako akordioetatik datorrenean, eskudirutan egin edo bestelako konpentsazio neurrien bidez egin.
- ♦ Itzulketa jasotzen duen zergadunak aurrez ordaindutako kopuru horiek, aurreko ekitaldietan, ohiko etxebizitza

precisamente, regular en el ámbito foral de Gipuzkoa, el tratamiento fiscal reservado a tales percepciones en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Modificaciones normativas

Introdujo las siguientes modificaciones en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

- ♦ No se integra en la base imponible las devoluciones derivadas de acuerdos celebrados con entidades financieras, en efectivo o a través de otras medidas de compensación, junto con sus correspondientes intereses indemnizatorios, de las cantidades previamente satisfechas a aquéllas en concepto de intereses por la aplicación de cláusulas de limitación de tipos de interés de préstamos.
- ♦ Cuando las cantidades previamente satisfechas por el contribuyente objeto de la devolución hubieran formado



erosteagatik aplikatutako kenkariaren oinarrian sartu badira, galdu egiten da haiengatik kenkaria egiteko eskubidea, eta finantza entitatearekiko akordioa hitzartu den zergaldiko kuota likidoari zenbateko hauek bakarrik gehitu beharko zaizkio: zerga administrazioak zor tributarioa bidezko likidazioaren bitartez zehazteko duen eskubidea preskribatu ez den ekitaldietan bidegabe kendutako zenbatekoak, berandutze interesik aplikatu gabe. Baina, zenbateko horiek ez zaizkio gehitzen kuota likidoari, baldin eta finantza entitateak, ukitutako zergadunarekin hala adostuta, zuzenean erabiltzen baditu zenbateko horiek ohiko etxebizitzaren erosketan finantzatu duen maileguaren tronkoa murrizteko.

parte, en ejercicios anteriores, de la base de la deducción por adquisición de vivienda habitual, se pierde el derecho a practicar la deducción en relación con las mismas, debiendo sumar a la cuota líquida devengada en el ejercicio en el que se hubiera celebrado el acuerdo con la entidad financiera, exclusivamente las cantidades indebidamente deducidas en los ejercicios respecto de los que no hubiera prescrito el derecho de la Administración para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación, sin inclusión de intereses de demora. Pero, no resulta de aplicación esa adición respecto de la parte de las cantidades que se destine directamente por la entidad financiera, tras el acuerdo con el contribuyente afectado, a minorar el principal del préstamo dedicado a la adquisición de la vivienda habitual.

- ◆ Itzulketa jasotzen duen
- ◆ Cuando las cantidades



zergadunak aurrez ordaindutako kopuru horiek gastu kengarritzat hartu badira aurreko ekitaldietan, eta ekitaldi horiei dagokienez ez bada preskribatu zerga administrazioak zor tributarioa bidezko likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidea, gastu kengarriak izateari utziko diote, eta ekitaldi horiengatik autoliquidazio osagarria egin beharko da finantza entitatearekin hitzartutako akordioaren egunetik zerga hau autoliquidatzeko hurrengo epea amaitu bitartean, zehapenik, berandutze interesik eta errekar gurik gabe.

previamente satisfechas por el contribuyente objeto de la devolución hubieran tenido la consideración de gasto deducible en ejercicios anteriores respecto de los que no hubiera prescrito el derecho de la Administración para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación, se perderá tal consideración, debiendo practicarse autoliquidación complementaria correspondiente a tales ejercicios, sin sanción, intereses de demora, ni recargo alguno en el plazo comprendido entre la fecha del acuerdo y la finalización del siguiente plazo de presentación de autoliquidación por este Impuesto.

♦ Itzulketa jasotzen duen zergadunak aurrez ordaindutako kopuru horiek ordaindu dituen ekitaldietan zerga honen autoliquidazioa aurkezteko epea ez bada amaitu kopuru horiek itzultzeko akordioa finantza entitatearekin hitzartu baino lehen, ez kopuru horiek eta ez aurreko a)

♦ Cuando las cantidades previamente satisfechas por el contribuyente objeto de la devolución hubieran sido satisfechas por el contribuyente en ejercicios cuyo plazo de presentación de autoliquidación por este Impuesto no hubiera finalizado con anterioridad al



letrako bigarren paragrafoan aipatutakoak ez dira sartuko ohiko etxebizitzaren erosketagatik aplikatzen den kenkariaren oinarrian, eta ez dira hartuko gastu kengarritzat.

acuerdo de devolución de las mismas celebrado con la entidad financiera, ni dichas cantidades ni las cantidades a que se refiere el segundo párrafo de la letra a) anterior formarán parte de la base de deducción por adquisición de vivienda habitual ni tendrán la consideración de gasto deducible.

Araugintza garatzeko beharrak

Kreditu entitateek itzultako zenbatekoei buruzko informazio behar bezala jaso ahal izateko, abenduaren 29ko 555/2017 Foru Aginduaren bidez, 181 urteko aitorten informatiboa aldatu zen, "Mailegu eta kredituen eta ondasun higiezinekin lotutako finantza eragiketen aitorten informatiboa".

181 eredu aldatzen da beharrezkoa gertatzen delako zehaztea «Besteren finantzaketatik eratorritako gastuengatik sortu diren zenbatekoen kalte-ordain gisa jasotako beste

Necesidades de desarrollo normativo

Para poder recoger de forma adecuada la información relativa a las cantidades restituidas por las entidades de crédito se modificó, mediante la Orden Foral 555/2017, de 29 de diciembre, el modelo informativo anual 181 "Declaración informativa de préstamos y créditos, y operaciones financieras relacionadas con bienes inmuebles".

El modelo 181 se modifica para precisar la información a incluir en el campo denominado «Otras cantidades indemnizatorias de importes devengados por gastos



kopuru batzuk» eremuan informazio hau bakarrik adierazi behar dela: «zoru klausulak» deitutakoen ondorioz jasotzen den beste edozein itzulketa ekonomiko, jasotzailearen zerga pertsonalari atxikitako errenta eratzen duenean, salbu eta interes horiek ordainsari izaera badute; izan ere, atxikipenari lotuta daudenez, interes horiek dagokien aitorten eremuan adierazi beharko dira.

Jasotzen den diru kopuruak ez badu eratzen jasotzailearentzat zergari lotutako errenta bat (aipatutako klausulak baliogabetzeagatik soberan ordaindutako interesen itzulketa, kalte-ordain gisa jasotako interesak), eredu horren berriazko eremuetan aitortu beharko dira.

Orobat, beste informazio eremu bat gehitzen zaio ereduari, hain zuzen ere, finantza entitateak maileguaren tronkoa murrizteko erabiltzen dituen diru-kopuruei dagokiena, zeinak etortzen baitira aipatutako klausulak

derivados de la financiación ajena». En el mismo únicamente debe consignarse cualquier otro tipo de reintegro económico derivado de las denominadas «cláusulas suelo» que constituyan renta sujeta a la imposición personal del perceptor, salvo que se trate de intereses remuneratorios, que al estar sometidos a retención, deben incluirse en el modelo de declaración correspondiente.

Cualquier otra cantidad que constituya renta no sujeta para el perceptor (devolución de intereses satisfechos en exceso por la anulación de las citadas cláusulas, intereses indemnizatorios) deben ser objeto de declaración en los campos específicos previstos en el citado modelo.

Asimismo, se añade un nuevo campo de información, relativo a las cantidades destinadas por la entidad financiera a minorar el principal del préstamo derivadas de la devolución de cuantías previamente satisfechas



direla-eta finantza entitateari aurrez ordaindutako kopuruan itzulketatik. Informazio hori edukitzea beharrezkoa da, kopuru horiek ez baitakarte berekin erregularizatzea ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik aurreko ekitaldietan aplikatutako kenkariak.

Sortutako ondorioak

Foru Dekretu-Arau honetako aldaketak eragina izango duten, gehienbat, 2017ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitortpenetan. Baina, gutxi bada ere, izan zuten eragina baita 2016ko aitortpen batzuetan ere.

Horrela, 2016an 181 pertsonak aitortu zuten itzulketak jaso zituztela entitate finantzarioetatik. Eta 115ek erregularizatu beharra izan zuten aurreko ekitaldietan aplikatutako kenkariengatik. Guztira ordaindutako zenbatekoa 47.780 eurotako izan zen.

a dicha entidad en concepto de dichas cláusulas, al objeto de disponer de dicha información, en la medida que las mismas no conllevan la regularización de las deducciones por inversión en vivienda habitual practicadas en ejercicios anteriores.

Efectos producidos

Las modificaciones del presente Decreto Foral Norma van a tener incidencia, principalmente, en las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas físicas del ejercicio 2017. Aunque de forma residual también afectó a algunas declaraciones del ejercicio 2016.

Así, en 2016 181 personas declararon haber recibido devoluciones por parte de las entidades financieras. Y a 115 correspondía regularizar por la aplicación de deducciones en ejercicio anteriores. El importe total abonado ascendió a 47.780 euros.



2017ko ekitaldiari dagokionez, 181 ereduko datu nagusiak honakoak dira:

Respecto al ejercicio fiscal 2017, los principales datos del modelo 181 son los siguientes:

Kontzeptua / Concepto	Kopurua/ Número	Zenbatekoa / Importe (€)
Besteren finantzaketatik eratorritako gastuen itzulketagatik ekitaldian sortutako zenbatekoa Importe devengado reintegro gastos derivados financiación ajena	4.762	22.749.121
Besteren finantzaketatik eratorritako gastuengatik sortu diren zenbatekoen kalte-ordain gisa jasotako interesak Intereses indemnizatorios de importes devengados por gastos derivados financiación ajena	3.943	15.105.026
Besteren finantzaketatik eratorritako gastuengatik sortu diren zenbatekoen kalte-ordain gisa jasotako beste kopuru batzuk Otras cantidades indemnizatorias de importes devengados por gastos derivados financiación ajena	312	729.003
Maileguaren tronkoa murrizteko erabilitako kopuruak Cantidades destinadas a minorar el principal del préstamo	442	2.105.408

Guztira 4.762 pertsonak jaso dituzte aurreko ekitaldietan edo ekitaldian bertan interesak direla-eta ordaindutako kopuruen itzulketagatik sortutako zenbatekoak. Eta guztira jasotako zenbatekoa 22,7 milioi euro izan da.

Un total de 4.762 personas han percibido importes derivados del reintegro de cantidades satisfechas en el ejercicio o en ejercicios anteriores en concepto de intereses. Y el importe total percibido asciende a 22,7 millones de euros.

Oro har, eta betiere preskripzio data gainditu ez badute, pertsona horiek zenbateko horiek erregularizatu beharko dituzte, baldin eta, aurreko ekitaldietan, ohiko etxebizitza erosteagatik aplikatutako kenkariaren

En general, y siempre que no hubieran superado la fecha de prescripción, esas personas deberán regularizar esos importes en el caso de que hubieran formado parte, en ejercicios anteriores, de la base de la



oinarrian sartu badira. Edo, gastu kengarritzat hartu badira aurreko ekitaldietan.

Guztira 3.943 pertsonak jaso dituzte aurreko ekitaldietan edo ekitaldian bertan, interesak direla-eta ordaindutako kopuruak itzultzeagatik kalte-ordain gisa jasotako interesen ondorioz ekitaldian sortutako zenbatekoak. Eta guztira jasotako zenbatekoa 15,1 milioi euro izan da.

Araudiak esaten du zenbateko horiek jasotzeagatik ez dela inongo erregularizaziorik egin behar.

Guztira 312 pertsonak jaso dituzte aurreko ekitaldietan edo ekitaldian bertan interesengatik ordaindutako diru kopuruaren itzulketatik gora jasotako edozein zenbateko, jasotzailearentzat zergari lotutako errenta eratzen duenean, salbu eta interes horiek ordainsari izaera

deducción por adquisición de vivienda habitual. O si hubieran tenido la consideración de gasto deducible en ejercicios anteriores.

Un total de 3.943 personas han percibido importes derivados en concepto de intereses indemnizatorios por el reintegro de cantidades satisfechas en ejercicios anteriores o en el propio ejercicio en concepto de intereses. Y el importe total percibido asciende a 15,1 millones de euros.

La normativa señala que no procede ninguna regularización como consecuencia de la percepción de esos importes.

Un total de 312 personas han percibido importes superiores al derivado del reintegro de cantidades satisfechas en ejercicios anteriores o en el propio ejercicio en concepto de intereses que tenga la consideración de renta sujeta para su perceptor, salvo que tengan la naturaleza de



badute. Hemen sartuta daude, besteak beste, kostu judizialak, eta finantza entitatearekin adostutako akordioetatik eratortzen den beste edozein kopuru, jasotzailearentzat zergari lotutako errenta eratzen duenean.

Guztira jasotako zenbatekoa 729.003 eurotakoa izan da.

Oro har, eta betiere preskripzio data gainditu ez badute, pertsona horiek zenbateko horiek erregularizatu beharko dituzte.

Guztira 442 pertsonak itzulketa eskubidea zuten zenbatekoa bideratu dute maileguaren tronkoa murriztera. Guztira zenbatekoa 2,1 milioi eurotakoa izan da.

Araudiak esaten du zenbateko horiek jasotzeagatik ez dela inongo erregularizaziorik egin behar.

intereses remuneratorios. Se incluyen, entre otros conceptos, las cantidades percibidas por costas judiciales o cualquier otra derivada de un acuerdo con la entidad financiera, que tenga la consideración de renta sujeta para su perceptor.

El importe total percibido asciende a 729.003 euros.

En general, y siempre que no hubieran superado la fecha de prescripción, esas personas deberán regularizar esos importes.

Un total de 442 personas han destinado las cantidades a las que tenían derecho de devolución a minorar el principal del préstamo. El importe total asciende 2,1 millones de euros.

La normativa señala que no procede ninguna regularización como consecuencia de la percepción de esos importes.



Jasotako zenbatekoengatik erregularizazioa egin behar denean, hori egin beharko da 2017ko ekitaldi fiskaleko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aurkezterakoan.

En los casos en que proceda una regularización de las cantidades percibidas, está deberá realizarse cuando se presente la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas físicas del ejercicio fiscal 2017.

Beraz, oraindik ez daukagu zoru klausulen aplikazioengatik ordaindutako kopuruen itzulketek izan duten eragin fiskalari eta zerga-bilketako eraginari buruzko informaziorik.

Por tanto, todavía no se dispone de información relativa al efecto fiscal y recaudatorio de las cantidades percibidas como consecuencia de la restitución de las cantidades satisfechas en aplicación de las cláusulas suelo.

Laburbilduz

Aztertutako foru dekretu-araua eraginkortasunez bete da, inongo arazorik gabe eta traba berezirik gabe bete.

Lortutako helburuei dagokionez, esan beharra dago, konponbidea eman

En resumen

El Decreto Foral-Norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación y sin ningún contratiempo en especial.

Respecto a los objetivos alcanzados, señalar, se ha dado solución al



zaiola zoru klausulak direla-eta jasotako itzulketak zenbatekoek izango duten tratamendu fiskalari.

Nahiz eta neurriak eragin pixka bat izan duen 2016ko PFEZko aitortpenetan, ondorioak neurri handiagoan ezagutzeko 2017ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko zain egon beharko da, eta hori 2018ko apirila eta ekainaren artean gertatuko da.

Bestalde, erregelamenduzko garapen bereziak aurrera eramateko beharrik ez da egon, eta haren aplikazioan ez da gertatu inolako judicializazio kasurik.

tratamiento fiscal de las cantidades percibidas como consecuencia de las devoluciones de las cláusulas suelo.

Aunque la medida ha tenido cierto efecto en las declaraciones del IRPF de 2016, para conocer en mayor medida sus consecuencias habrá que esperar a la presentación de las declaraciones del ejercicio 2017, que se realizarán entre abril y junio de 2018.

Por otro lado, no ha tenido que llevarse a cabo ningún tipo de desarrollo reglamentario especial, y hasta la fecha no ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.